

»  
eguneko  
esaldiak

**VALENTI FUSTER** (Kardiologoa)

«Mundu osoan gaixotasun kardiobaskularren izurri tragiko handi baten atarian gaude»

**JUANITO OIARZABAL** (Himalayista)

«Nire asmoa ez da errekorrak haustea, ezta beste inorekin ikamikan aritzea ere»

**AMAIA ARROYO** (Anorexia gaixoa)

«Argaltzen banuen zoriontsu izango nintzela uste nuen, eta tristezia eta samina baino ez nituen izan»

» gogoeta

## Aita Garate hil da

**JOSEBA INTXAUSTI**  
HISTORIALARIA

**A**ita Jose Antonio Garate Unanue hil da, Bermeon, joan den astelehenean, ia 90 urte zituelarik (1914-2003). Euskalgintzan, egile eta eragilea; aldizkarien sortzaile eta zuzendaria; hainbat euskaltzaleren gidari eta babesa. Gizon on eta langile fin bat joan zaigu. Bera izan zen Arantzazuko Egutegiaren aita ere (1947).

Zahardadeak eta gaixotasunak urteetan zerbait alboratu baldin bazuten ere, Aita Garate ongi beteta zuten bere heldutasunaren gure herriaren aldeko lan luze eskerrak (1945-1980).

### Bizi-ibilera

Azkoitiarra zen Jose Antonio; espartinak egiten zituzten familia haietako semea. Maitea zuten oso bere herria, eta hara itzultzen zen ahal zuenetan, batez ere herriko semeak ohoratzeko (*Aita Nemesio Otaño*, 1980).

Hala ere, J. A. Garate Tolosan bizi izan zen gehienbat, ia hurogegi urteetan (1941-2000), eta urte askotan bertako paisaia eliz-herritarren parte esanahitsua gertatu zen. Tolosarrek ere halaxe tratatu zuten, omenaldiak ere eginez.

Mutiko zela, Arantzazura joan zen frantziskotar izateko asmoz (1926), eta handik aurrera fraidegaien ikas-ibilbidea bete zuen, harik eta 1938an apaiztu zen arte, bain zuzen gerra amaitez aragoela.

Horrek guztiak aukera eman zion Garateri Arantzazun Errepublikan-urteetan eratzten ari zen euskaltzalesuna ezagutu eta beretzeko. Gaztelan pare bat urte iraganda (1939-1941), Euskal Herritarzako parada izan zuen fraide gazte eta eraginkor honek. Garateren inguruan, eta lehendik zetortzen tradizioxoari jarraituz, Tolosako Komentu horrek bere alde kulturala ere garatu ahal izan zuen, 1945etik aitzina.

Sermolari ona, eta gizarteko harremanetan iaioa izan zen, jendea bere ingurura bildu eta ekintza jendetsuak gidatzeko. Bestalde, lan taldeak eratzten gaitasun ona erakutsi zuen, euskararen aldeko bere ekimenetan batik bat.

Tolosaldean bizi arren, Goierri osoa ere izan zen haren lanen eremua, Nafarroako Mendialde euskalduna ahantzi gabe. Eskura izandako *Lambretta* berri eta zaharrek kilometro anitz egin zuen, herri eta auzoetara iristeko.

Garateren urte emankorrenak 1945-1970etakoak izan ziren, hogeita bost urte bete-beteak, sasoirik onenean. Gero, garai berriek zerbait etxera bildu zuten arren, idaztea eta maite zuen historia aztertzea ez zituen laga, 1980a edo pasa arte.

Maskalaldi luze baten ondoren, Bermeoko fraideen Zahar-Etxera bildu zen 2000. urtean, eta han hil da, azkenik.

### Garate euskalgilea

Frankismoaren garaiko aldizkako hiru argitalpenen sortzailea izan zen Jose Antonio Garate: Arantzazuko Egutegia

(1947), *Anaitasuna* (Gipuzkoa: 1950) eta *Goiz-Argi* (1958). Baina horien aurretik ere, 1944an hasi zen euskarazko lehenengo lanak argitara ematen.

Data horiek gogoan ditugula, gizon aitzindaria izan genuela esan behar da. Hiru argitalpenak zabalkunde handikoak gertatu ziren (gogora gainera, Bizkaiko *Anaitasuna*, giputzaren babesean eta luzapen gisa Berriatuak sortutakoa: 1952-1976). Ugari banatu ziren Euskal Herrian: Egutegiak 25.000ren bat ale inguru saldu zituzten urtero (Gipuzkoa, Bizkaia). Gipuzkoako *Anaitasuna* 12.000 harpidedun izatera iritsi zen, Garateren paperekin gogorazten ditugutenez.

Lan herritarra izan zen hori dena, aurrena eliz egitura sozialei guztiz lotua (Hirugarren Ordena, Arantzazuko Kofradia, etab.), bere lan taldearekin leiala izan zen (J. Oñatibia, Gaztañaga, Uxola, etab.), baina betiere oso bere eskutik eramandeen zuzen. Geroago (1970...), laiko-taldeenkin osatua eta beregaina.

Maite izan zuen Garatek idazketa, eta gidatzen zituen aldizkarietan erruz bete zituen orrialdeak, batzuetan izenordeak erabiliz (Joxe Urkiola, Joxate).

1970etik aurrera, euskal giro ozpindua go hartan (euskara batuaren arazoa eta abar), bere lan taldearekin leiala izan zen (J. Oñatibia, Gaztañaga, Uxola, etab.), baina joera berriagoekin modu txarrean hautsi gabe. Orduan Tolosan etxe berean bizi izan ginen (1971-1977), Senitarte erlijiosoko harmonia onean, Aita Joxe Antonio eta jakindarrok. Ez dut hori sekula ahantziko. Korronte berrietan (izan ere, Kontzilio-ondorena ere bazen hura) bere burua gaingiturik ikusten zuela esango

nuke, baina euskaltzalesunak aitzina egiten zuela ikusita, gizona pozik bere bihotzean.

### Garate, elizgizona

Garate eragile eta gidaria izan zen beti, euskalgintzan bezala Elizan ere. Ez zen parroki bulego-lanera, baina Tolosako frantziskotarren zerbitzu historiko batean (1940-1970: aitor-entzule lanean, alegia) milaka ordu dezente eman zituen, Tolosaldeko fededun euskaldunen mesedetan. Predikari bezala, Gipuzkoan egindakoaz gain, Nafarroa euskalduneari pastoraltza euskalduna segurtatzen lagundu zuen Tolosatik.

Oso bestelako zeregin batean nabarmendu zen, gainera, Garate: Arantzazurako Erromesaldiak antolatzen (1944-1964). Erromesaldi berriok Santutegiko historian ziklo berria ekarri zuten, lehenagoko geografia hedatuz eta antolakuntza modernotuz (1950etan egindakoa funtsezko sozializazio-lana bilakatu zen Santutegirako, orduan eta gero). Zeregin horretan azpimarratzekoa da Garateren ekarpena: 170ren bat erromesaldi antolatu eta eraman zituen Arantzazura.

XX. mendeko gure kulturaren eta erlijio-tasun herritarren historia egin nahi denaroko, Garate bezalako pertsonaiak arretaz begiratzekoak dira, herritarrengan izandako eraginagatik eta erakutsitako *lider* gaitasunagatik. Goian bcgo, bada, Joxe Antonio Garate euskaltzale frantziskotar adiskidea, hainbat zerbitzu on egin ziguna.

» hitzordua

## Etika eta politika

(Aurreko orriatik dator)

aurka, eredu errepublikarrak ez du zertan konpartitu komunitate prepolitiko baten nozio kulturalik, ezta komunitateari eman dakiokeen balio absoluturik ere.

Eredu horrek, batez ere, praktika politiko modura ulertzen du herritarzkoa, esparru publikoan parte hartzea suspertuz. Ez da oinarritzen, beraz, gizabana-koaren nagusitasun ontologikoan, ezta eskubide partikular batzuen defentsan ere, beti eraikitzeaz dagoen proiektu konpartitu batean baizik. Ez dago eskubide historiko edo naturalik, prozesu politiko baten fruitu izan diren herritarren eskubideak baizik: hitzarmen eta arauen bidez sortutako eskubideak, ez aldezkareko premisen fruitu.

Ondorengo ekitaldiak eztabaidarako marko teoriko honen barruan egin dira. Horrela, bigarren saioa politikaren eta ekonomia-aren arteko harremanez aritu

da, eta bereziki herritargo sozialak bete beharreko baldintzez, merkatuaren eta demokraziaren arteko menpekotasunaz, eskubide sozialez edo ongizate estatuarren krisialdiaz.

Hirugarren egunean, aurreko saioetako elementu balioetsuenak erabiliz, europar herritargoari buruzko hausnarketari ekin diogu, bai goizeko nola arratsaldeko ekitaldietan. Bertan, pil-pilean dagoen europar konstituzioa aztergai jarri dugu, europar konbentzioan izan diren eztabaidak gogora ekarriz, besteak beste, partizipazioa, ordezkaritza, estatuaren papea, europar identitatea edo ikuspuntu federalista.

Azkenik, ekarpenak eta eztabaida oso oparoak gertatu diren neurrian, mintegian azaldu diren txostenak eta ondorioak argitaratzeko asmo sendoa hartu dugu, aztertu diren gaiek oso eragin zuzena izango baitute abiadura handiz gautzaten ari den etorkizun laburrean.

» hemeroteka

### EL PAIS

#### Saharako partida

Segurtasun Kontseiluak, Espainiak Lehendakaritza duela, James Baker AEBetako Estatu idazkari ohiak egin eta Washingtonen erabateko onespenu duen Saharako plan berriari buruzko iritzia eman behar du laster. Proposamena Saharako gatazkaren bi aldean aldarrikapenak biltzeko saio itzela izan da: batetik, logika juridikoa, Polisarioak eskatzen duena, hau da, autodeterminazio eskubidea gauzatzea, nazioarteko eskatu bezala; eta, bestetik, logika politikoa, Marokok eskatua, zeinaren-rtzat inposatutako edozein irtenbide, zuzenbidearen izenean izanik ere, onartezina baita. (...)

Polisarioak, orain arte plan honi zuhurtziaz begiratu dion arren, agiriaren aukerak aztertze asmoa iragarri du ezustean. Dirudienez, ulertu egin du, iragapenaldiko autonomiak iraungo duen lauzpabost urteetan arazoak

sortzen baldin badira, gutxienez hautesleek legitimitatuko ordezkarri politikoak izango dituela hurrengo negoziatzioetarako. Eta hori da, besteak beste, Marokok atzerapausotzat jo duena. Rabatek proiektua errefusatu du, Parisen laguntzarekin, Segurtasun Kontseiluko bere garantearen laguntzarekin.

Ziurrenik, NBEko erabakiguneak —aste honetan bertan bilera bat egingo du—, ez du Marokoren nahien aurkako erabakirik inposatuko, Washingtonek berak ere ez baitu nahi. Oraindik badago astirik Rabati garrantzia politikoa emateko, iragapenaldian prozesua bertan behera gertatuz gero dituen beldurrak uxatzeko. Bakterrek proposatutako lauzpabost urteko autonomiak barne demokratizaziorako planei helteko balio lezake; demokratizazio horrek Marokoren posizioa indartuko luke, hainbat aldiz atzeratu ondoren, plan berriak aurreikusten duen erreferenduma egingo balitz Espainiaren kolonia ohi horretan.